




2015-2019 agintaldirako plana





2015-2019 agintaldirako plana





2015-2019 agintaldirako plana



AURKIBIDEA

1 >>	SARRERA	07
2 >>	GURE XEDEA	09
3 >>	GURE IKUSPEGIA	11
4 >>	GURE BALIOAK	13
5 >>	GURE KUDEAKETA-PLANA	
	ANTOLAKUNTZA	15
	HERRITARRAK	23
	LURRALDEA	43
	HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK	49





SARRERA

Udala da herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa, eta herritarren **galdera, behar eta asmo** askori erantzuten diena. Erantzukizun handia da, zalantzarik gabe; horregatik, behar beharrezkoa ikusi dugu agintaldi honetako ekintza politikoa behar bezala planifikatu eta herritarren esku jartzea. Horrela bada, Zarauzko Udalaren 2015-2019 Agintaldirako Plana izango da agintaldi honetan izango ditugun erroken erantzuteko tresna.

Lehen erroka, hain zuzen ere, herritarrek udaletan eta ordezkari publikoetan izandako konfiantza berreskuratzea izango da. Eraitza hori lortzeko Udalaren jardunerako eredu integrala izan nahi du Planak. Gardentasun osoz herritarren aurrean jarriko den Plan honek, zerbitzu publikoen eraginkortasuna bultzatuko du, zeharkako politika publikoetan barne koordinazioa ziurtatuko du, antolakuntza eta giza baliabideak sendotu eta jasangarritasun finantzarioa bultzatuko du.

Gobernu taldean udalerriaz dugun ikuspegia gauzatzeko estrategikotzat jotzen ditugun ildo nagusiak zehaztuko ditu 2015-2019 Agintaldirako Planak. Ez da Udalak egingo duen lan guztiaren bilduma, helburu estrategiko nagusiak lortzeko garrantzi gehien duten jardueren berri emango duen dokumentua baizik.

Agintaldirako Plana hiru arlo nagusitan garatu da:

1. Herritarrak (pertsonek)
2. Lurraldea (espazio fisikoa), eta
3. Antolakuntza.

Arlo bakoitzean helburuak eta ekintzak ezarri eta lehenetsi ditugu, ekintza bakoitzari dagokion aurrekontua esleitu diogu, eta arduradun teknikoak izendatu ditugu.

Agintaldirako Plana gobernu taldearentzako eta erakundearentzako kudeaketa tresna bat da, eta zuzendaritza politikoko eta teknikoko organoei dagokie haren jarraipena, kudeaketa eta ebaluazioa egitea. Baina herritarrentzat ere tresna baliagarria **izan daiteke, zalantzarik gabe:**

- Agintaldirako Planak lehenetsunak identifikatzen laguntzen du
- Aukera ematen du lortu nahi diren helburuak betetzeko beharrezko ekintzen jarraipena egiteko, ziurgabetasunari ahalik eta tarterik txikiena utzita.
- Erraztu egiten du komunikazioa, bai antolakundeari berari begirakoa, baita herritarrei begirakoa ere.
- Gardentasuna areagotzen du.
- Esparru bat eskaintzen du politika publikoen ebaluaziorako.
- Herritarren parte-hartzea ahalbidetzen du

2015-2019 Agintaldirako Plana Alkatetzak gidatu du Zuzendaritza Taldearen parte-hartzearekin eta udal departamentu guztietako arduradunen laguntzarekin.



GURE XEDEA

Xedearen bidez erakundearen izateko arrazoia edo asmoa adierazi nahi dugu.

Zer lan egiten dugu Udalean? Norentzat egiten dugu lan?

Gobernu talde honen xedea da udalerrriaren lurralde garapen eta garapen sozial eta ekonomiko jasagarriak sustatzea eta herritar guztien bizi kalitatearen etengabeko hobekuntza bilatzea, horretarako herritarren behar eta nahiei modu orekatuan erantzunez.



GURE IKUSPEGIA

Ikuspegiak gobernu taldeak lortu nahi duen egoera deskribatzen du. Denbora epe jakin batean nora jo nahi dugun eta etorkizunean zer irudi eduki nahi dugun, hitz batean, nolako udalerrria nahi dugun.

Zarautz nolakoa izatea nahi dugu?

Datozen lau urtetan lan egingo dugu Zarautz udalerrri jasangarri eta berritzailea izateko, bertako ingurune naturala, kultura eta euskararekin konprometitua, eta aniztasunari irekia.

Herritarren solidaritatea, ekintzailetasuna eta parte-hartzea bultzatuko ditugu, askatasuna oinarri hartuta.



GURE BALIOAK

Jardun politikoa, bere izaerarik sakonenean, balioetan oinarritutako ekintza da. Gure jardun politikoa gidatuko duten erreferente etikoak hauexek dira:

1. Zintotasuna

Emandako hitza betetzen saiatuko gara, zuzentasunez jardungo dugu erabakiak hartzerakoan, beti ere zarautzarron ongizateari begira.

2. Solidaritatea

Zailtasun gehien duten pertsonen aldeko politikak aurrera eramateko konpromisoa hartzen dugu, udalerrian bertan eta herrien arteko kooperazioan ere bai.

3. Gardentasuna

Gure jardun politikoa gardentasunez erakutsiko diegu herritarrei. Zer egiten dugun eta nola egiten dugun, horretarako beharrezkoak diren bideak erabiliz.

4. Efizientzia

Dauzkagun baliabideak ahalik eta modu eraginkorrean erabiliko ditugu agintaldirako ezarri ditugun helburuak lortzeko.

5. Herritarrengana bideratua eta arreta pertsonalizatua

Pertsonak izango dira gure lanaren ardatz eta helburua, administrazioa herritarrei begira jarriko dugu eta pertsona bakoitzari behar eta merezi duen harrera eta arreta eskaintzen saiatuko gara.

6. Berrikuntzarekin, garapen teknologikoarekin eta etengabeko hobekuntzarekin konpromisoa

Administrazioa ere garai berrietara egokitzeko konpromisoa hartzen dugu, bai kudeaketa modu berritzaileekin bai teknologia berrieekin ere. Ziur gaude etengabeko hobekuntzaren bidetik Udalak gero eta zerbitzu hobea emateko helburua beteko duela.

7. Herritarren partaidetza bultzatzea erabaki estrategikoetan

Herritarrak Udalera eta Udala herritarrengana hurbilduko dugu: informazioa eman, partekatu eta baita ere iradokizun eta proposamenak jaso. Bi noranzkoak landuko dira agintaldian zehar. Erabaki estrategikoetan herritarren parte-hartzea bereziki bultzatuko dugu.



AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA

Agintaldirako Planaren definizioa Udalaren antolamendu-ikuspegi berri batean oinarritzen da, gobernu-ekintzaren hiru arlo nagusiak zehatzuz: Antolakuntza, Herritarrak eta Lurraldea.

Plan honek udal-antolaketa eta kudeaketa eraldatu nahi ditu, Zarauztarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko, proiektu zehatzei dagozkien jardun-ildo nagusiak zein diren zehaztuz.

ANTOLAKUNTZA

“Egitura hoberenak ere ez ditu emaitzak eta etekinak bermatuko. Baina egitura okerra porrotaren bermea da”.

“Antolakuntza-egitura eskas batekin ezinezkoa da lan ona egitea, pertsonak onenak izanda ere”.

Peter Ferdinand Drucker, abokatu eta tratatu-idazle austriarra, XX. mendeko filosofo nagusitzat hartzen da administrazioaren arloan (management bezala ere ezagutzen da).

Azkeneko urteetan tokiko administrazioa lanean ibili da herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak hobetzeko eta areagotzeko, administrazio hori delako herritarrengandik hurbilen dagoena.

Zarauzko Udalak, zerbitzu publikoko erakunde gisa, konpromiso bat hartu zuen helburu horiek lortzeko: modernizazio eta kalitate plan bat diseinatzea eta betetzea maila guztietan. Plan horrek herritarrekiko kanal eta konexio modura jardungo du, eta horrela lortuko da Udalaren helburuak bat etortzea komunitatearekin eta haren etengabeko bilakaerarekin.

Kalitatez lan egiteak esan nahi du bezeroaren beharrak eta nahiak betetzen direla, adeitasunez, azkar, eraginkortasunez eta neurrizko kostuetan. Kalitateak helburu bat du: bezeroaren nahiak betetzea. Gauzak ondo eginda eta eskura ditugun tresnak taxuz erabilia lortzen da hori. Horrela adierazita, kalitatea, berez, ez da helburu bat, baizik eta etengabeko hobekuntza prozesu bat.

Antolakuntza moderno eta kalitatezko batek bere prozesuak diseinatu, kudeatu eta hobetu behar ditu, bere bezeroak erabat asetzeko eta gero eta zerbitzu hobe eskaintzeko.

Eta zer da prozesua? Elkarren artean erlazionatutako jardura multzo bat da, eta zerbitzua hartzaileen edo erabiltzaileen eskura jartzeko erabiltzen da. Beharrezkoa da, beraz, prozesu kritikoak identifikatzea, bat etorri behar dutelako



AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA ANTOLAKUNTZA

Erakundearen ikuspegi eta baloreekin.

Udal zerbitzu publikoen prestazioaren euskarri legal, tekniko-finantzario eta administratiboari buruzko eskumenak hartuko ditu bere gain Antolakuntzaren Arloak:

- **Herritarren arreta zerbitzu integrala**
- **Aginduzko lege-aholkularitza**
- **Prozesuen hobekuntza eta sinplifikazioa**
- **Ekonomia, finantza eta aurrekontu kudeaketaren kontrola eta fiskalizazioa**
- **Kontabilitatea eta Diruzaintza**
- **Zergen kudeaketa eta bilketa**
- **Kontabilitate publikoa, kontuen kontrola eta kontu-ematea**
- **Giza baliabideak**
- **Informazio eta Komunikazioen Teknologia**
- **Dokumentazioa**

2015-2019 agintaldi-planean honako helburu estrategikoak eta ekintzak jarri zaizkio Antolakuntza Arloari:

1. ZERBITZUAK HERRITARRENGANA HURBILTZEN JARRAITZEA.

Honako ekintzak aurreikusi dira, lehen helburu estrategiko hori betetzeko:

Herritarren Arreta Zerbitzu Integrala.

Herritarrei arreta ona eskaintzea oinarrizkoa da zerbitzuaren kalitatean, eta, gainera, aurrerapena ekartzen dio zerbitzuari, bi arrazoiengatik: batetik, erabiltzaileekiko komunikazioa hobetzen delako eta, bestetik, ahaleginak egiten direlako haiek planteatzen dituzten arazoak eraginkortasunez konpontzeko.

2014an onartutako udal antolakuntza berriaren baitan, oinarrizko helburu bezala jarri zen herritarren arreta zerbitzu bat sortzea (HAZ), herritarrei arreta zerbitzu integrala emateko, Zarauzko Udalarekiko harremanetan.

Horrenbestez, erabateko lehenetsuna dauka **Herritarren Arreta Zerbitzu Integrala** martxan jartzeak, hortik eskainiko baitira, osorik, esku-hartze teknikorik behar ez duten ia udal zerbitzu guztiak (informazioa, tramitazioa eta kudeaketak), aurrez aurre, telefono bidez edo telematikoki.

Udal Zerbitzu Telematikoak zabaltzea.

Testuinguru berean eta helburu berarekin, Zerbitzu Telematikoak zabalduko dira, tramiteak etxetik mugitu beharrik gabe egiteko. Horrela beteko da herritarrek administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko daukaten eskubidea (11/2007 Legeak, ekainaren 22koak, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzkoak aitortutakoa).

Gardentasuna bultzatzea eta web-orrian informazio aktiboa jartzea.

Ekintza politiko orok oinarrizko hiru ardatz hauek izan behar ditu: gardentasuna, informazio publiko eskuragarria eta gobernu onaren arauak. Horrela betetzen dira, hain zuzen, 19/2013 Legean jasotako xedapenak (abendua 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa).

Udal zerbitzuen katalogoa egitea.

Herritarrek argi eta garbi jakin behar dute Udalak zein zerbitzu ematen dituen, nork betetzen dituen, zein den horien kostua eta nori zuzentzen zaizkion. Horretarako beharrezkoa da ematen diren zerbitzuen katalogazioa egitea.

Herritarren Arretako zerbitzuen karta egitea.

Dokumentu bat egingo da, herritarrek jakin dezaten Udalak bere zerbitzuak betetzeko zereginean zer konpromiso hartzen dituen hainbat gaitan (erabilgarritasuna, fidagarritasuna, azkartasuna, etab.). Dokumentu hori administrazioaren eta herritarren arteko kontratu moduko bat izango da, zerbitzuak emateko erari buruzkoa.

Dokumentazio Zentro berria sortzea.

Udaleko informazio historiko eta administratibo guztia bilduko duen Dokumentazio Zentro bat

sortuko da. Modernotasunaren aldetik, zentro horrek aukera emango du bertan dagoen informazioa eskuratzeko, herritarrentzako kontsultagune irisgarria eta erakargarria izango delako.

2. ADMINISTRAZIO- ETA LAN-PROZESUAK HOBETZEA

Antolakuntza administratiboaren eta laneko prozesuen hobekuntzari buruzkoa da bigarren lerro estrategikoa. Helburua da antolakuntza modernoa eta kalitatezkoa lortzea.

Horretarako honako ekintza hauek egitea aurreikusi da:

Espedienteak kudeatzeko aplikazio informatikoa hobetzea eta mantentzea.

Honako hau erabaki estrategiko bat da, udal antolakuntza guztiari eragiten dio, eta lana modu eraginkorrean egiten laguntzen du.

Azken finean Udalean egun funtzionamenduan dagoen espedienteen kudeaketa-sistema finkatzea ekarriko du, edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren informatika sozietateak bultzatutako aldaketa aukeratzea.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

Udalak Diru-laguntzen Plan Estrategiko berria onartu behar du. Hor zehaztuko dira: hura aplikatuta

AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA ANTOLAKUNTZA

↳ lortu nahi diren helburu eta ondorioak, helburu horiek lortzeko epeak, aurreikusitako kostuak eta horien finantziario-iturriak; edonola ere, aurrekontu-egonkortasuneko helburuen mende egongo dira.

Zergen kudeaketa eguneratzea: zerga-erreklamazioak eta gainbalioak.

Arlo ekonomikoan eraginkortasun handiagoa lortzeko, beharrezkoa da zergen eta zerga-erreklamazioen kudeaketa berrikusi eta eguneratzea, herritarrei erantzun azkar eta eraginkorra emateko.

Uraren eta zaborren tasei eta surfeko prezio publikoei buruzko azterketa ekonomiko-finantzarioa egitea.

Zerbitzuaren benetako kostua eta erabiltzaileei jarri beharreko salbuespenak aztertu behar dira.

Kontratazio alorreko aplikazio informatiko bat egitea.

Kontratazio arloan aplikazio informatiko bat martxan jartzeak aukera emango du Udalak sinatuta dituen kontratuen segimendu arin eta eraginkorra egiteko eta horiek behar bezala kontrolatu eta gainbegiratzeko.

Kontratazio administrazio-klausulen plegu orokorrak egitea eta onartzea.

Udalak tramitatzeko dituen esleipenetan

irizpideak bateratzeko eta era guztietako kontratu administratiboak aplikatzeko moduko klausulak sartzeko jarri da ekintza hau (klausula sozialak, linguistikoak, generokoak, jasangarritasunekoak, etab.).

Kontratazio arloan araudi bateratua egitea eta onartzea.

Kontua da udal kontratazio administratiboan aplikatzeko prozeduraren hainbat arlotan eragina izango duten irizpide edo printzipio orokor batzuk jarri eta onartzea (irizpide linguistikoak eta abar), udal arloetako jarduerak bateratzearen.

Espedienteak hobetzen eta sinplifikatzen jarraitzea.

Herritarren Arreta Zerbitzu Integrala jarri behar zela-eta, prozedura administratiboak berrikusi, arrazionalizatu eta sinplifikatzeko prozesu bat egin da, bai eta tramiteen eta prozeduren gida bat ere, "Prozedura Administratiboaren Eskuliburua" izenekoa.

Dokumentu horretan, era ordenatu eta sistematikoan jasotzen da prozedura administratibo bakoitzaren oinarriko informazioa: zer den, nork eska dezakeen, aurkeztu beharreko agiriak, non eska daitekeen, horrek sortzen dituen betebeharrak ekonomikoak, tramitazioaren epeak eta lege-esparrua; horrez gain bete beharreko agirien ereduak ere ematen ditu, halakorik egonez gero.

Udalak aurrera jarraituko du prozedurak sinplifikatu eta arrazionalizatzeko prozesuarekin, etengabeko hobekuntza eta berrikuste prozesuaren barruan.

Udal ordenantzak eta erregelamenduak berrikustea, eguneratzea eta hobetzea.

Udal araudiak etengabe egokitu behar izaten dira, une oro dauden beharrei aurre egiteko, aldaketetara moldatzeko eta udal eskumeneko hainbat arlotako esperientziekin bat etortzeko.

Estiloak eta formatuak bateratzea. Estilo Liburua egitea.

Estilo Liburu bat egingo da, gai hauei buruzko erabilera-arauak emateko: dokumentuen ereduak, estiloa eta tipologia; generoari dagokionez, berdintasuneko erabilera; tratamendu pertsonalak eta protokoloak; letra larrien eta xeheen erabilera; letra motak, laburdurak, datak eta orduak, etab. Horrez gain, dokumentu zehatzen ereduak ere proposatuko dira (aktak, ziurtagiriak, gutunak, agurrak, dekretuak eta ohikoak diren guztiak).

Udal dokumentazioa kohesionatzea da jarraibide eta eredu horien helburua, departamentu guztiek komunikazio publiko eta estilo irizpide bakarra izan dezaten eta dokumentuen ereduak ere erabilera-formatu bateratua izan dezaten departamentu guztietan.

Antolakuntza instituzional berrira egokitzea. Hiru informazio-batzorde sortzea.

Udalerria osatzen duten hiru elementuetatik abiatuta, hiru arlo handi sortu dira Udalaren antolakuntza instituzionalean: Herritarrak, Lurralde eta Antolakuntza. Horrek bere islada izan behar du informazio-batzordeen izendapenean eta funtzionamenduan, ahal dela hainbeste bilera ez egiteko. Beraz, antolakuntzan dagokion aldaketa egitea aurreikusten da.

Nortasun Korporatiboaren Eskuliburua egitea.

Nortasun Korporatiboaren Eskuliburu bat egingo da. Eskuliburuak Zarauzko Udala identifikatuko duten elementu bisualak deskribatu eta arautuko ditu, komunikazioa egokia izan dadin. Helburua da Nortasun Korporatibo Instituzional bakarra, eraginkorra eta koherentea eta Udalaren balioak nortasun propioarekin helarazteko gai izango dena definitzea.

Bideoaktak egiteko aplikazio informatikoa martxan jartzea.

Udalaren kide anitzeko organoetako aktak egiten laguntzea da ekintza honen helburua. Aktetan, akordioak edo informazio-batzordeetako irizpenak sartuko dira; eta bideoaktetan, berriz, hizketaldiak eta "bilkuren egunkaria" delakoa.

AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA ANTOLAKUNTZA

⇒ Elkarteen Udal Erregistroa sortzea eta egunean edukitzea.

Helburua da Udalak jakitea udalerrian zenbat elkarre dauden, zein helburu dituzten eta zer ordezkariak duten. Horrela bakarrik egin ahalko delako herritarren artean elkartegintza sustatzeko udal politika egokia. Elkarreentzat ere baliagarria izango da, parte hartzeko aukerak edukitzeko eta onura eta laguntzak jasotzeko.

3 GIZA BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA, ARRAZIONALIZATZEA ETA HORIEN BALIOA AZPIMARRATZEA.

Antolakuntzak dituen giza baliabideak optimizatzea da agintaldi planaren hirugarren lerro estrategikoaren helburu nagusia. Nola? Giza baliabideak teknologia berrietara egokituz eta etengabeko prestakuntza-jarduerak eginez. Jarduera horien bitartez lortuko da, izan ere, zerbitzuen prestazioan kalitatea hobetzea eta herritarren behar eta eskakizun berrietara egokitzea.

Helburu hori lortzeko honako ekintza hauek jarri dira:

Langilearen ataria finkatzea.

- **Baimenak eta lizentziak emateko prozedura normalizatu.**
- **Lanaldiak, egutegiak.**
- **Irizpide tekniko-juridiko homogeenak jartzeko azterketa.**

Behin-behineko lanpostuak hornitzea.

Administrariak; Turismoko laguntzaileak; Udaltzaingoa; Obra eta eraikinetako zainzailea; Liburuzaina; Diruzaina.

Antolakuntzaren azterketan onartutako neurriak gauzatzea.

2014ko irailean udal antolakuntza berria onartu zuen Udalbatzarrak. Orain kontua da erabaki hartan sartutako neurriak betetzea: singularizazioak (lehiaketak); udal departamentu batzuen azterketa xehatua (Hirigintza eta Herrilan, Gizarte Zerbitzuak) eta lanpostuen lekualdatzeak (Liburutegiko koordinatzailea, Idazkaritzako administrazio orokorreko teknikaria).

Lan eskaintza publikoa martxan jartzea.

Plaza hutsak betetzea, legeak jarritako mugen barruan; 2015ean zehar hutsik geratutako lanpostuak betetzeko tasa finkatzea, teknikarien eta politikarien artean lehentasunak jarrita.

Laneko Arriskuen Prebentzioa bultzatzea eta bermatzea.

Ondorengo neurriak sartzen dira:

- **Osasun zaintzako eta lan-arriskuen prebentzioko zerbitzua kontratatzeko pleguak onartzea.**
- **Segurtasun eta Osasuneko Batzordea osatu eta martxan jartzea.**
- **Egoera zehatzak aztertu eta beste lanpostu batzuetan adskribatzea.**

Langileen etengabeko prestakuntza.

Araudia onartu, diagnostikoa egin eta plana onartzea.

CRET@ eta SAVIA aplikazioetan aldaketak egitea.

Prestakuntza eta praktikak. Aurrekontuaren 1 kapitulua eguneratzea.

Langile berriei harrera egokia egitea.

Beharrezkoa da langile berriei euren eskubideen eta betebeharren eta Kode Etikoaren berri ematea. Horretarako harrerako eskuliburu bat egingo da. Bisita gidatu bat egitea udal bulegoak ezagutzeko.

Lanpostuak berrikustea.

Lanpostuak berrikustea, bai funtzioen aldetik, bai

balorazio eta ordainsarien aldetik, une oro egunean edukitzeko.

4. INFORMATIKAKO ETA KOMUNIKAZIOKO APLIKAZIOAK HOBETZEA.

Antolakuntzaren arloko laugarren helburu estrategikoa aplikazio informatikoak eta komunikazioak hobetzea da.

Ondorengo ekintzak jaso dira (ez dute beste argibiderik behar):

- **Web-orriak bateratzea. Ez daitezela aldi berean informazioko orri piloa egon, horrek informazioa sakabanatzen duelako eta askotan lortzea zaila izaten delako.**
- **Telefonogunea berritzea.**
- **Bideozaintza sistema bateratzea.**
- **Dokumentuak kudeatzeko sistema berria jartzea.**
- **Bake Epaitegiarekin konexioa egitea, zuntz optikoaren bidez.**
- **Ofimatikako lizentziak eguneratzea.**
- **Telefoniako operadore bat kontratatzea (linea finkoak, mugikorrek eta ADSL).**



AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA HERRITARRAK

Zarauzko Udalaren gobernu taldeak agintaldi honetarako, besteren artean, egiteko hau jarri dio bere buruari: *"...herritar guztien bizi kalitatearen etengabeko hobekuntza bilatzea, horretarako herritarren behar eta nahiei modu orekatuan erantzunez"*.

Herritarren ongizatea da, beraz, Udalaren helburua. Agintaldirako Plan honetan zehazten dugu, herritarren behar eta nahiei modu orekatuan erantzuteko helburu eta ekintzen zerrenda.

Herritarrak komunitate baten parte dira, eta hala sentitzea bultzatuko du Udalak. Lau urte hauetako lana komunitatearen begien aurrean jarriko du, arrazoi desberdinengatik zailtasun gehien dituzten pertsonen beharrei modu egokian erantzuteko, haur eta adinekoei beharrezko zerbitzuak eskaintzeko, gizon eta emakumeen arteko parekidetasuneranzko bidean aurrera egiteko, gazte ekintzaile eta konprometituak hezteko, gure kultura eta hizkuntza babestu eta sustatzeko, iraunkortasunean hazteko, aniztasuna, solidaritatea eta herritarren partaidetza bultzatzeko...

Herritarren arloa hamahiru departamentuk osatzen dute gaur egun: Kultura, Liburutegia, Euskara, Euskaltegia, Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Gazteria, Hezkuntza, Mugikortasuna, Herritarren Partaidetza eta Agenda 21, Udaltzaingoa eta Hiri Segurtasuna, Kirola eta Turismoa eta Ekitaldiak eta Jaiak.

Departamentu bakoitzaren eginkizun nagusienak hauek dira:

1. Kultura Departamentuari dagokio kultur ekipamenduen plangintza egitea, kultur sustapena eta sorkuntzari dagozkion egitasmoak kudeatzea, ekitaldien programazioa, Modelo Aretoko jarduerak, Literatura, Artisau Azoka, erakusketak... Artezaleak, Photomuseum eta Musika Bandarekin hitzarmenak, kultura sustatzeko diru-laguntzak, Txopitea Beka... Arte eta Historia museoa kudeatzen du eta baita Musika Eskola ere. Kultur eragileen partaidetza bideratzen du Kultur Mahaiaren bidez. Agintaldi honetan Ondare Plana jarriko da abian.

2. Liburutegiaren funtzioen artean daude, liburutegi zerbitzua kudeatzeaz gain, haur eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmoak antolatzea.

3. Euskara Departamentuaren eginkizuna da Udalean zein udalerrian euskararen normalizaziorako planak eta horien betetze mailaren jarraipena egitea: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eta Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. Horiekin batera euskara sustatzeko diru-laguntzak ematea, Udal langileen etengabeko prestakuntza eta Euskararen Aholku Batzordea kudeatzea. Agintaldi honetan hizkuntza transmisioa eta haur eta gazteen euskara erabilera izango dira landuko diren gai nagusietako batzuk. Eta administrazioak, kontratuetan ezartzen dituen hizkuntza baldintzen betetze mailaren jarraipenari ere arreta berezia jarriko zaio.

AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA HERRITARRAK

➔ **4. Euskaltegiak** helduak euskaldundu eta alfabetatzeko zerbitzua eskaintzen du, eta Euskara Departamentuarekin batera udal langileen euskara prestakuntzan ere aritzen da.

Gizartea aldatzen den heinean bere beharrak ere aldatzen dira, eta Euskaltegiak ere behar horiei erantzun behar die. Ohiko ikastaroez gain, etorkinentzako ikastaroak, gaztetxoentzako errefortzu ikastaroak, merkatari eta ostalarientzako ikastaroak... Eskaintza ugari eta malgua egingo da.

5. Gizarte Zerbitzuetako Departamentua oinarrizko gizarte zerbitzuen sarbidea da. Balioespen eta orientazio zerbitzua ematen du. Baliabide eta eskubide sozialei buruzko arreta, informazioa, orientazioa eta aholkularitza ere bai.

Departamentu honen funtzioa herritarren ongizatea lortzea da, oinarrizko gabeziak estali eta behar duenari babesa ematea. Udalak dituen baliabideak berbanatzen ditu gutxien dutenen artean, berdintasun sozial nabari eta deigarriak zuzentzeko asmoarekin.

Zerbitzu ugari eskaintzen ditu: etxe-laguntza zerbitzua, Eguneko Zentroa, 3. adinekoen aisialdi eta osasunaren zaintza, babespeko apartamentuak, adingabekoentzako eta haien familientzako arreta eta laguntza psikosoziala, larrialdietarako laguntzak, alokairuko etxebizitza sozialen kudeaketa, Neguetxea, indarkeria matxistaren biktimei arreta, gobernuz kanpoko erakundeekin elkarlana herrien arteko

solidaritatea zabaltzeko...

Mendekotasunei aurre egiteko Tokiko Plana kudeatzen du, eta droga informazio gunea eta eskoletan mendekotasunei aurre egiteko programak ere bai.

Zarauzko Immigrazioaren Tokiko Planaren bidez iritsi berrientzat harrera-saioak eta atzerriartasan arloko prozedurei buruzko informazio eta orientazioa eskaintzen zaie, gure bizimodura errazago moldatu daitezen.

Erretiratu eta 3. adinekoen elkarteekin koordinazioa eta elkarlana bultzatzen da, 3. Adinekoen Mahaiaren bitartez eta Herriekiko lankidetzaren ere bai.

Plan honetan jasotzen diren ekintzez gain, Gizarte Zerbitzuen zeregin nagusiak egunerokotasunean ematen dira 3,6 milioiko aurrekontuarekin. Hirugarren adinari buruzko zerbitzu batzuk aipatzeagatik, Etxelaguntza zerbitzuak ia 400.000 euroko aurrekontua dauka urtean, Eguneko Zentroak 800.000 eurokoa eta babespeko apartamentuek 400.000 eurokoa.

6. Parekidetasun Departamentuaren egiteko nagusia Zarauzko Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako III Tokiko Planean jasotzen da. Genero indarkeriaren biktimei arreta emateko protokoloa ere kudeatzen du, Jabetza Eskola garatzen du Parekidetasun Kontseiluarekin batera, emakumeak ahalduntzen laguntzeko.

Herritarrak kontziliazioan eta erantzukidetasunean sentsibilizatzea da beste eginkizunetako bat, eta haur eta gazteen artean hezkidetzaren berdintasuna, hezkuntza afektibo-sexuala eta indarkeria sexista prebenitzeko hezkuntza programak garatzea ere bai.

7. Gazteria Departamentuak gazteriaren inguruko aholkularitza, orientazioa eta informazioa ematen du. Gazte elkarteek sustatutako ekimenak laguntzen ditu, Zarauzko gazteei sormenerako eta kultura-hedapenerako laguntzak bideratzen dizkie eta Gaztelekuko, Gazte Informazio Bulegoko, KZ Guneko eta Zinema pilotalekuko kudeaketaren ardura dauka.

8. Hezkuntza Departamentuaren eginkizun nagusia eskolen mantentze-lanen kudeaketaz arduratzea da. Horretaz gain, departamentuak Udalaren hezkuntza programen planifikazioa eta koordinazioa egiten du. Ludoteka eta Udaleku Irekien kudeaketa. Eskola Kontseilua antolatzen du: ikastetxeen eta Udalaren arteko koordinazio organoa.

9. Mugikortasun Departamentua. Bere funtzio nagusia Mugikortasun Plana idaztea izango da. Baita ere udalerrian dauden mugikortasun-beharrak aztertu eta Udaleko beste departamentuekin koordinatzea, behar horiek hobetzeko. Hainbat udal zerbitzuen antolaketa eta hobekuntza proposatzea ere bere eginkizunen artean egongo da, hots, trafikoa, garraio publikoa, azpiegiturak eta semaforoak, bidegorri-sarea, aparkaleku publikoak, zenbait eremutako pasabide baimenak...

10. Herritarren Partaidetza eta Agenda 21. Partaidetza Departamentuak bi egiteko nagusi ditu. Alde batetik, herritarren parte-hartzea sustatu eta garatzeko proposamenak egitea Udal Gobernuari, Udalak martxan jartzen dituen parte-hartze ekimenak diseinatzea eta horien ezarpena, ebaluazioa eta emaitzen sozializazioa.

Eta bestetik, Agenda 21 programa kudeatzea Iraunkortasun Ekintza Planaren bitartez. Agenda 21 programaren helburu nagusia da udalerriarren garapen iraunkorra bultzatzea eta Udal barruan sortzen diren desorekak zuzentzen laguntzea. Eskolako Agenda 21 programa ere koordinatzen du: sentsibilizazio-kanpainak diseinatu, gauzatu eta ebaluatu egiten ditu.

11. Udaltzaingoa eta Hiri Segurtasuneko Departamentuak. Udal agintari eta ondasunen zaintzaren ardura dauka, administrazio-polizia lanak egiten ditu, udal arauak eta ordenantzak betearaziz. Auzi-poliziari laguntza ematen dio, eta prebentzio lanak egiten ditu, ordena publikoa babestu, gatuzka pribatuen konponketan kooperatu, salaketak tramitatu, trafikoa erregulatu, istripuen argiketak egin, bizikleten erregistroa; Bide Heziketa ere bere funtzioen artean dago.

Agintaldi honetan herritarrenganako gertutasuna bultzatuko da bereziki: oinezko patruilak gehituko dira, parkeak zaintzeko, ezinduentzako aparkalekuak kontrolatzeko... eta, batez ere, hainbat arlotan prebentzio-lanak gertutik egin ahal izateko.

AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA HERRITARRAK

→ Udaltzaingoak egoitza berria behar du. Agintaldi honetan proiektua egin, eta lehen lanak hasiko dira Villa Nuria, Arrate eta Iciar eraikinean.

12. Kiroletako Departamentuak kirol praktika osasuntsua sustatu nahi du. Udal kirol instalakuntzen erabilera eta mantentze-lanak kudeatzen ditu departamentuak, eta Eskola Kirola koordinatzea eta kirola sustatzeko diru-laguntzak ematea ere bere eginkizunak dira. Agintaldi honetako erronkarik nagusiena Kirol Plana egitea izango da.

13. Turismoa, Ekitaldiak eta Jaietako Departamentuak bi arlo nagusi kudeatzen ditu. Alde batetik turismoa, jarduera ekonomiko gisa, eta bestetik ekitaldi eta jaiak. Aipagarria da Turismo Bulegoak Kalitatezko Q ziurtagiria daukala.

Bere egiteko nagusiak ondokoak dira jaien inguruan: Udalak sustatutako jai eta ekitaldiak koordinatu eta kudeatu, eta ekitaldien agenda osatu eta ezagutarazi.

Turismoari dagokionez, berriz, kontuan izan behar dugu udalerrian jarduera ekonomiko garrantzitsua dela. Horrela bada, eginkizunak sustapenekoak izango dira gehienbat: informazioa eskaini, Turismo azoketan Zarauzko eskaintza erakutsi, udalerriko agente turistikoekin eta eskualdeko turismo bulegoekin elkarlana bultzatu... Agintaldi honetan eskaintza berriak aztertu nahi dira: familia turismoa, natura turismoa, turismo aktiboa, gastronomikoa... Zalantzarik gabe, Zarautz bezalako herri batek asko eskain diezaike bisitariari.

Aipagarriak dira urte honetan bertan sortutako "Toldotxo pintxo" eta egin nahi diren hainbat eta hainbat e-hobekuntza: QR bidezko informazio-puntuak, sakelako telefonoetarako app-ak, surfari lotutako eskaintzak, ostatuen seinaleztapen berria, sektoreko langileentzako prestakuntza eta harrera esku-liburua, autobus geltokietako informazio-panel berriak...

Herritarren arloan 7 helburu nagusi eta 59 ekintza ezarri ditu gobernu taldeak 2015-2019 epealdirako. Horietan indar berezia jarriko da udal kudeaketan.

1. Herritarren ongizatea bermatzen jarraitzea, gizartearen eta komunitatearen esku hartzeko egitasmoak indartuz
2. Herritartasun aktiboa sustatzea
3. Udal ekipamenduak egokitzea
4. Udalerrian euskararen erabilera sendotzea
5. Garapen iraunkorra sustatzea
6. Jarduera ekonomikoak indartzea
7. Herritarren parte-hartzea bultzatzea gai estrategikoetan eta elkarren arteko bizikidetzaren sustatzea

1. HERRITARREN ONGIZATEA BERMATZEN JARRAITZEA, GIZARTEAN ETA KOMUNITATEAN ESKU HARTZEKO EGITASMOAK INDARTUZ

1.1 Gizarte Zerbitzuen mapa egin GFArekin batera

Gizarte zerbitzuen mapa lurralde mailako plangintzari dagokio. Gipuzkoako Foru Aldundiaren

ardura da mapa egitea, udal eta mankomunitateekin batera. Zarauzko Udala eta Urola Kostako Udal Elkartearen elkarlanean ari dira, etorkizuneko behar sozialei aurre egiteko zerbitzuak aurreikusi eta zehazten: mendekotasuna duten pertsonentzako zerbitzuak, desgaitasun fisiko zein psikikoa dutenentzat, haurren babeserako zerbitzuak, larrialdikoak... Guztiak aztertzen ditu mapak.

Gizarte Zerbitzuen Mapa egitearekin batera Udalak dituen zerbitzuen egokitasuna aztertuko da, behar diren aldaketak eta eguneratzeak egiteko; behar berriei erantzuteko zerbitzu berrien katalogoa ere egingo da.

1.2 Etxelaguntza zerbitzua behar berrietara egokitu: desgaitasuna, autonomoak, guraso bakarreko familiak...

Etxelaguntza zerbitzua udal eskumenekoa da, eta agintaldi honetan indartu egingo da, batez ere behar berrietara modu orokorragoan zabalduz: desgaitasuna duten pertsonen, autonomoen eta guraso bakarreko familiei.

1.3 Zaintzaileak zaintzeko zerbitzua indartu, "Sendia" programaren bidez

Erakundeek zerbitzu ugari eskaintzen badituzte ere, gero eta zaharragoa den gizarte honetan, familiek zaintza lan handiak egiten dituzte. Zaintzaileek lan hori egiten jarraitzeko laguntza eta bitartekoak behar dituzte. Zaintzailea zaindu beharra dago. Lan hori egingo da Sendian egitasmoa indartuz.

1.4 Neguetxeren aukerak zabaltzea

Neguetxe zerbitzuaren ordutegia zabaltzea dugu, etxetik gabeko pertsonentzako zerbitzu egokiagoa eman ahal izateko. Helburua integrazioa da, eta horretan laguntzeko topagunea sortzen ari gara.

1.5 Etxegabetzeen aurkako protokoloa egin

Krisia dela-eta gertatzen diren etxegabetzeen aurkako protokoloa onartuko du Udalak, etxegabetuei laguntzeko asmoarekin, ahal dela etxegabetzerik ez gertatzeko.

1.6 Diru-laguntza lerro berria errenta baxuena duten familientzat

Familientzako diru-laguntza lerroa osatuko da, eskolako gastuei eta energia pobrezia aurre egiteko, etxeko oinarritzako gastuak ordaintzen laguntzeko, gazteei unibertsitatetarako desplazamenduetan laguntzeko, etab.

1.7 Haurren Nazioarteko egunaren inguruan "Haurtzaroren Eguna" antolatzea.

Azaroaren 20an da Haurren Nazioarteko eguna. Haurren eskubideei buruzko sentsibilizazioa egingo da, haurren babesa helburu izanda. Bestetik, kale heziketa programa indartuko dugu eta haurrentzako arreta zabaltzeko dugu.

AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA HERRITARRAK

1.8 Adikzioen Tokiko Plana egin eta adikzio arriskuan egon daitezkeen adingabekoen detekzio goiztiarra.

Zarauztarren artean jokabide osasuntsuak sustatzea da Adikzioen Planaren helburu nagusia. Prebentzio ekintzak planifikatuko dira, bai eskolan, bai familian, baita komunitatean ere. Gazteen artean aisialdi eremuan kontsumoei lotutako arriskuak gutxitzeko jarduerak ere zehaztuko dira planean.

Udalak prebentzio lanari garrantzi handia ematen dio. Baina prebentzio lanak eraginkorrak izan daitezten, eguneratu eta egokitu behar dira. Horrela bada, azterketa sakona egingo da arrisku egoeran dauden adingabekoak ahalik eta azkarren identifikatzeko eta behar dituzten programen bidez esku-hartze egokiak egiteko.

1.9 Koordinazio soziosanitarioa indartu eta batzordea berreskuratu

Koordinazio sozio-sanitarioa behar-beharrezkoa da, askotan osasun arazoak eta gizarte mailako arreta beharrak lotuta daudelako. Osakidetza eta Udal langileen arteko harremana eta lankidetzaren gunea berreskuratzea ezinbestekoa da kasuen kudeaketa sistemarekin lana egiteko. 2016an zehar egingo da lan hori.

1.10 Etorrintzako euskara/harrera ikastaroak indartu eta Ikaslaguna egitasmoa abian jarri.

Kanpotik Zarautzera etorri berriei harrera egiteko saioak indartuko dira. Ikastaro horien helburua da gure artean errazago moldatzea eta egunero izan ditzaketen zailtasunei aurre egiteko bitartekoak ematea. Euskararenganako hurbilpena ere eskaintzen zaie, euskara Zarautzen integrazio bidea ere badelako. Euskara eta harrera ikastaroak urtean bitan emango dira.

Bestalde, adituen ustez orokorrean hiru dira ikasle baten eskola-porrorean eragiten duten aldagaiak: pertsonalak, hezkuntza-sistemari lotutakoak eta sozio-ekonomikoak.

Ikaslaguna programaren bidez herriko ikastetxeekin lankidetzan azken aldagai honetan eragiten saiatuko gara. Izan ere, maila sozio-ekonomiko eta kultural baxuagoa duten ikasleentzako artean handiagoa da ikasketak behar baino lehenago uzten dituztenen kopurua.

Irakasle-boluntarioekin laguntza-sare bat osatuko dute beharra eduki eta baliabide ekonomiko urriak dituzten ikasleei etxeko lanak egiten laguntzeko.

1.11 Migratzaileen familiak berriz batzeko egitasmoa

Zarautz bakarkako migrazio proiektuen herria izan da neurri handi batean. Alegia, bakarrik etortzen ziren

migratzaileak, eta gerora gehienek ez zuten familia ekartzen. Orain ordea, hori aldatzen ari da, orain dela urte batzuk etorritako migratzaile batzuk seme-alabak ekartzen hasi dira.

Urteetan aldenduta egon ondoren familia berriro batzea gatazka-iturri izan daiteke. Eta prozesu hori bideratzeko lanketa bat egingo da familiako kideekin.

1.12 Hirugarren adineko pertsonen beharrak ezagutzeko diagnostikoa egin. Lagunkoia egitasmoa dinamizatu eta indartu.

Euskadi Lagunkoia, Eusko Jaurlaritzaren enplegu eta gizarte politiketako sailak martxan jarritako ekimen bat da, eta hiru helburu nagusi ditu: adineko pertsonen potentziala aprobetxatzea, zarauztarren parte-hartze prozesuak sortzea eta sustatzea, eta herritarren bizi kalitatea hobetzea.

Zarauzko Udala Euskadi Lagunkoia ekimenera atxiki da. Lehen fasean diagnostikoa egingo da, ondoren hobetzeko dauden eremuei buruzko txostena, eta azkenik ekintza plana gauzatuko da. Hau guztia, hirugarren adineko elkarte eta eragileekin elkarlanean egingo da.

2. HERRITARTASUN AKTIBOA SUSTATZEA:

Lau urte hauetan bereziki bultzatuko diren egitasmo eta ekintzek lagunduko dute helburu hori betetzen. Zarauztarrak gero eta herritar aktiboagoak izateko kultur arloko ekintzak, kirolak, jaiak, gazte eta adinekoentzako jarduerak... Mota askotako ekintzak eramango ditugu aurrera.

2.1 Kultur programazioa eta ikastaro eskaintzak sendotu

Datozen lau urteotan kultur programazioa sendotzeko ahalegin berezia egingo da.

Artezaleak elkartarekin dagoen hitzarmenari esker ikastaro-eskaintza ugaria da Zarautzen. Agintaldi honetan eskaintza zabaldu eta aberastuko da.

2.2 Zarauzko kultur ondarea baloreen jartzeko plana abian jarri

Zarauzko Kultur Ondarearen Ekintza Planaren helburua da Kultur Ondarea gordetzea, babestea, ikertzea eta zabaltzea. Beste hainbat gauzen artean, Zarauzko artisten lanak, pintura, eskultura, monumentuak...

2016-19ko epealdian ondarearen diagnostikoa egingo da, Historia eta Kulturaren Ikerketa Koadernoak argitaratuko dira, ibilbideak sortuko dira eta Arte eta Historia Museoaren birplanteamendua



AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA HERRITARRAK

⇒ egingo da.

2.3 Liburutegi digitala ezarri: mailegu zerbitzua, sare sozialetan presentzia izan, hedatu eta herritarrekin partekatzea.

Liburuen mailegua etxetik bertatik egin ahal izateko zerbitzua ezarriko da. Liburutegiak ere presentzia izango du sare sozialetan herritarrengandik hurbilago egoteko eta informazioa hobeto partekatzeko.

2.4 Kirol Plana diseinatu: Eskola Kirola, Partaidetza Kirola eta Errendimendu Kirola eta Komunikazio Plana egin.

Eskola Kirola, Partaidetza Kirola eta Errendimendu Kirola bereiziko ditu Kirol Planak. Kirol mota bakoitzean Udalaren politika definituko du (helburuak, bitartekoak, arauak, diru-laguntzak, ekipamenduak...).

Kiroldegiko araudia berrituko da, eta klubuen erregistroa eta instalakuntzen lagapena eguneratuko dira.

Kiroletako Departamentuak komunikazio plana egingo du, kiroldegiaren eskaintza herritarrengana errazago eta azkarrago helarazteko, kirol eragileekin harremana eta informazio trukaketa biziagoa izateko, herriko kirol agenda aberatsa modu egokiagoan gizarteratzeko.

2.5 “3k” kirol kalitatearen ziurtagiria lortu eta sistema martxan jarri

Gipuzkoako Foru Aldundiak ziurtatzen duen kudeaketa sistema da “3K kirol kalitatearen ziurtagiria”. Legealdi amaieran ziurtagiria lortzeko helburua ezarri du Kiroletako Departamentuak.

2.6 Herriko ekitaldien agenda oso eta bateratua egiteko prozedura hobetu eta informazioa zabaltzeko euskarri berritzaileak ezarri

Zarautzen ekintza ugari antolatzen dira urtean zehar. Eragile asko dago eta hori oso aberasgarria da, baina zail gertatzen da batzuetan informazio guztia zentralizatzea. Agintaldi honetan bitartekoak jarriko ditu Udalak informazio hori guztia bildu eta modu egokian zabaltzeko. Giza baliabideak jarri dira eta urte honetan materialak jarriko dira, batez ere informazioa zabaltzeko euskarri berritzaileak.

Ekintza honek bere baitan dauka herriko talde eta elkarteekin harremana sendotzea, bai informazioa partekatzeko orduan, bai ekitaldiak antolatzekoan ere.

2.7 Herriko jai nagusienei buruzko hausnarketa eta hobekuntza bultzatu.

Inauteriak, San Pelaio, Aste Nagusia eta Euskal Asteari buruzko hausnarketa egin nahi du Udalak. Aste Nagusiak garai batean zuen garrantzia berreskuratu, Euskal Jaien jatorrizko balioak



AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA HERRITARRAK

indarrean jarri berriz ere...

Bestalde, auzoetako jaiak antolatzerakoan auzo elkarrekin elkarlana ere indartuko da.

2.8 Haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzuak bultzatzea

Haurrentzako Zerbitzua martxan jartzeko hausnarketa egingo da, orain dagoen ludoteka zerbitzutik abiatuta. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gaztematika egitasmoak aurreikusten dituen lan ildoan ezarpena egingo da, espazio fisikotik haratago, 9-12 urteko haurrentzako eskaintza berrikustearekin batera.

2.9 Gobernuz kanpoko Erakunde eta boluntarioen lana bultzatu eta gazte kooperanteentzako diru-laguntza lerroa sortu

Zarauztarrek behin eta berriz erakutsi dute beren balioen artean solidaritateak garrantzi handia duela. Gobernuz Kanpoko Erakundeek egiten duten lana, eta boluntarioek egiten dutena laguntzen jarraitu nahi dugu, eta indartu egingo dugu gainera, aurrekontuaren 0,7 helburu hauetarako erabilita. Gazte kooperanteentzako diru-laguntza lerro berria eratuko da. Herriko gazteak beste herrialdeetara kooperante gisa joateko erabiliko dira. Solidaritatea eta herrien arteko elkartasuna bultzatzea dute helburu.

2.10 III Parekidetasun Planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa egitea

3. Parekidetasun Plana indarrean dago eta horren betetze mailaren jarraipena egingo da urtero, udal departamentu guztiekin batera.

2.11 Udalak Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren aldeko Ordenantza egingo du eta gizonen sareak sortu eta indartuko ditu emakumeekin batera berdintasunaren alde lan egiteko.

Parekidetasun plana kudeaketa tresna da, baina arau garrantzitsuak ordenantza bidez onartzen dira Udalean. Horrela bada, Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ordenantza egiteko asmoa dauka 2016an.

2.12 Jabetze eskola areagotu eta herriko emakume elkarrekin sareak sortu, indarkeria sexista jasaten duten emakumeak ahalduentzako eta autonomoak izateko neurriak hartzeko.

Jabetze eskola emakumea ahalduentzako baliabide garrantzitsua da. Alde batetik informazioa sortzeko eta bestetik emakumeen arteko sareak eta elkarlanak sortzen laguntzen duelako. Horretxegatik indartu eta zabaldu nahi dugu. Indarkeria sexista eta matxistari aurre egitea helburu nagusietako bat da Parekidetasun Departamentuan. Hori lortzeko protokoloa landu eta onartu zen. Orain biktimei arreta hobea emateko indarrean dagoen Erakundeen

Arteko Protokoloa berrikusi eta hobetuko da. Baina protokolo horiek onartu eta hobetzeaz gain, indarkeria sexista jasan duten emakumeak ahalduentzako eta autonomoak izateko ekintzak antolatuko dira: herritarren elkartasun sarea sortuko da, sentsibilizazio kanpainak antolatuko dira, haur eta gazteekin lan egingo da...

3. UDAL EKIPAMENDUAK EGOKITZEA

Udal ekipamendu askotan berrikuntza lanak egiten dira urtero urtero, legealdi honetan beste batzuren artean, Gaztelekuan, Ebro Etxean eta Musika eskolan egingo dira.

Baina helburu honetan deskribatuko ditugun ekintzak ez dira maila horretakoak. Herritarrei eman beharreko zerbitzua hobetzeko, edo herritarrek zuzenean erabiltzen dituzten ekipamenduak hobetu edo berriak sortzeko ekintza konkretuak dira, hain zuzen ere.

3.1 Sanz Eneako 1 eta 2. solairuak liburutegi bihurtu

Haurren liburutegia zabalduko da, Sanz Eneako lehen solairu guztia hartuko du. 2018an egingo dira zabalte lan hauek.

3.2 Kultura Departamentuaren bulegoak Villa Mundan kokatu

Aurreko helburua betetzeko Kultura

Departamentuaren bulegoak Zeleta Berrin (Villa Munda) kokatuko dira. Horretarako Zeleta Berrin igogailua jarri eta behe solairuko egokitzapen obrak egingo dira 2017an zehar. Aurrekontua 290.000 eurokoa izango da.

3.3 Modelo Aretoa- egokitzapen obrak

Modelo Aretoa katalogatutako eraikina da, balio historikoa duena. Agintaldi honetan birgaitze lanak egingo dira. Teilatua berritzea izango da lehen fasea eta egitura egonkortzea bigarrena, segurtasuna bermatzeaz gain edukiera arazoei aurre egin ahal izateko. 2016an proiektua idatziko da eta 2017an hasiko dira obrak. 520.000 euroko aurrekontua erabiliko da agintaldian.

3.4 Astiko kirol azpiegiturak: aldagela berriak, errugbiko tribuna estali eta argindar azpiegiturak doitu.

Aldagela berrien eraikuntzak 1.000 metro koadro izango ditu, aldagelak ez ezik gimnasioa, bulegoa eta bilera gela hartuko ditu bere baitan. 1.100.000 euroko aurrekontua izango du eta 2016 eta 2017a bitartean eraikiko da.

Tribuna estaltzeko proiektua abian dago dagoeneko, 100.000 euroko proiektua da eta 2016an egingo da. Azpiegitura berriek argindar potentzia gehiago eskatzen dutenez argi indarra doitzeko transformadore berria jarriko da 2016an, aurrekontua 140.000 eurokoa da.

AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA HERRITARRAK

3.5 Aritzatalde kiroldegiko hobekuntza lanak

Igerilekuen hondoak berritu, alde zaharreko botikina eta komun publikoak berritu eta arraun fosako erdi solairua eraiki. Horiek dira kiroldegian legealdi honetan egingo diren hobekuntza lanak. Guztien artean 250.000 euroko aurrekontua osatzen dute.

3.6 Lizardi institutuko kirol pista estali

Gero eta kirolari gehiago izateak kirol instalakuntza beharrak handitzea dakar. Lizardi Institutuko kirol pista estaltzeko asmoa du Udalak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin partekatu nahi da proiektu hau. 500.000 euroko aurrekontua dauka eta Jaurlaritzarekin landuko da bi erakundeen arteko finantziazioa izatea.

3.7 Udaltzaingoaren egoitza berria Villa Arrate, Iciar eta Nuria eraikinean kokatu

Udaltzaingoak egoitza berria eta handiagoa behar du. Legealdi honetan lekualdaketa hori abian jarriko da. Gaur egun Gurutze Gorriak erabiltzen duen eraikinean kokatuko da Udaltzaingoa etorkizun laburrean.

2016an ikuskapen tekniko sakona egingo zaio eraikinari, eta aldagelak jarriko dira bertan. Proiektua idatziko da eta 2017-2018an obrak egingo dira. 660.000 euroko aurrekontua izango da.

Gurutze Gorriarekin adostu da bere instalakuntza guztiak Itsasertzeko pasealekuan kokatzea.

3.8 Emakume Etxearen egitasmoa lantzea

Eskubide eta aukera berdintasuna lortzeko bidean, Udalak beste aurrerapauso garrantzitsu bat emango du, hala nola, erronka honetan egoitza, ikur eta erreferentea izango den Emakumeen Etxea sortzea.

Bertan, berdintasuna lortze aldera udalak aurrera eramaten dituen ekintza eta jarduera guztiak batu eta zentralizatzea da asmoa. Aldi berean, emakumeen parte-hartzea bultzatuko da, eta emakumeak, parekotasun ezaren aurrean, bizi dituzten esperientziak elkartrukatzeko gunea izango da. Bestalde, diskriminazio egoerak eta indarkeria sexista salatzen eta irtenbideak emateko elkarlanerako topagunea izango da.

4. UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILERA SENDOTZEA

Udalerrian euskararen erabilera sendotu eta herritarrek administrazioarekin harremanak euskaraz izateko duten eskubidea bermatu nahi ditu gobernu taldeak agintaldi honetan.

Zarautz herri euskalduna da, zalantzarik gabe, eta horrela izaten jarraitu nahi badugu euskararen erabilerak bultzada handia behar du oraindik ere.

4.1 2015-2017 Euskara Sustatzeko Ekintza Plana ezarri eta ebaluatu Euskara Aholku batzordearekin batera

Udalerrian euskararen erabilera sustatzeko ekintza plana bizia da, urtero urtero Aholku Batzordearekin aztertzen eta ebaluatzen dena. Planak sei lehentasun ezartzen ditu: 1-Herritarrek administrazioekiko harremana euskaraz izateko duten eskubidea bermatzea. 2- Zarautzen gero eta euskaldun gehiago izatea eta euskaldun alfabetatuen kopurua handitzea. 3- Kanpotik etorritako biztanleria euskalduntzea. 4-Udalerrian egoera sozioekonomikoa kontuan hartuta, 3. sektore ekonomikoan euskararen erabilera bultzatzea. 5- Erabilera datuei begira, gazteen artean erabilera areagotzea. Gaitasun eta erabileraren arteko jauzia txikitzea. 6-Etxeko hizkuntzaren erabilera handitzea. Hizkuntza transmisioari arreta berezia jarri.

2017an, Planaren epealdia amaitutakoan, ebaluazio orokorra egingo da. Ekintza Plan honetako jardura aipagarrietako batzuk zerbitzu enpresa eta gremioetan euskararen erabilera bultzatzera bideratuko dira, eta baita haur eta gazteen artean euskararen erabilera indartzera ere. 2016an, gainera, EAE guztian lau urtez behin egiten den erabileraren kale neurketa egingo da. Hiru jardura horien aurrekontua 200.000 eurokoa izango da lau urtetan.

4.2 2018-2021 Euskara Sustatzeko Ekintza Plana egin

Legealdi amaieran hurrengo lau urtetarako Plan berria diseinatuko dugu, eta lehentasunak berrikusiko dira.

4.3 2013-2017 Erabilera Plana ezarri eta ebaluatu Jarraipen batzordearekin batera

Indarrean dagoen erabilera planaren helburua da euskara izatea udaleko zerbitzu eta lan hizkuntza. Horretarako hartu beharreko neurriak, bete beharreko hizkuntza irizpideak eta jarri behar diren bitartekoak ezartzen ditu. Horietako neurri bat izango da zerbitzu guztiak euskaraz eskaini daitezkeela bermatzea. Horrela bada, Udalak kontratatzen dituen enpresei jarraituko hizkuntza baldintzen betetze mailaren jarraipen zehatza egingo da, berariazko aplikazio baten bidez: Kontratuzain.

Planaren indarraldia amaitutakoan, behar bezala ebaluatuko da bereziki izendatutako Jarraipen Batzordearekin batera.

4.4 2018-2021 Erabilera plana diseinatu

Legealdi amaieran datozen lau urtetarako Erabilera Plana erabakiko da.

AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA HERRITARRAK

5. UDALERRIAREN GARAPEN IRAUNKORRA SUSTATZEA

5.1 Mugikortasun Plana

Mugikortasun planak udalerrian dauden mugikortasun beharrak aztertuko ditu. Trafikoa, garraio publikoa, bidegorri-sarea, azpiegitura eta semaforoak, oinezkoentzako guneak, aparkalekuak... Mugikortasun iraunkorra lortzea izango da planaren helburua. Garraio publikoa, bizikleta eta oinezkoentzako gune eta ibilbideak sustatuko dira, hau da ingurumenean eragin gutxien dituzten mugikortasun erak edo moduak.

5.2. Autobusen 3. ibilbidea aztertu eta ezarri

Autobus publikoak bi ibilbide egiten ditu gaur egun. Mugikortasun iraunkorraren ikuspegitik zerbitzu hau areagotzea neurri egokia litzateke. Hortaz, 3. ibilbidea aztertu eta ezarriko da.

5.3. Bizikleta bideen sarea hedatu eta hobetu

Zarauzko bidegorri sarea eraikitzen jarraitu beharra dago. Orain arte egindakoa aztertu, hobetu eta hedatuko da.

5.4. TAO sistema egokitu eta sinplifikatu

Autoak aparkatzeko TAO sistema ere berrikusiko da urtero, beharretara egokitu eta sinplifikatu nahi da, erabiltzaileentzako tresna baliagarria eta erraza izan

dadin.

5.5 Bide heziketa ikastaroak indartu

Gaur egun bide heziketa ikastaroak eskoletan ematen dira gehienbat. Herritar gehiagorengana iritsi nahi dugu agintaldian eta saioak ugaritu eta zabalduko ditugu, alderdi teorikoan eta praktikoan.

5.6 Zarauzko Udaleko Iraunkortasuneko III Ekintza Plana

Zarauzko Udalaren konpromisoa da udalerrian garapen iraunkorreko eredu lortzea: udalerrri hau bere beharrei erantzuteko gai izan dadin, baina etorkizuneko belaunaldiak ere bere beharrei erantzun ahal izateko aukera arriskuan jarri gabe.

Herri bateko Garapen iraunkorra natura zaintzeko ahalegina egiten duena da, herritarren gizarte kohesioa ahalbidetzen duena eta herritarren ongizate ekonomikoa lortzeko beharrezkoa dena. Zarauzko Agenda 21 etengabeko prozesua da eta herritarren eta udal administrazioaren elkarlanean oinarritzen da garapen iraunkor hori lortzeko. Legealdi honetan III Plana erabakiko da, plana zeharkakoa izango da, Udaleko departamentu guztiak eta udalerriko hainbat arlo ere bere baitan hartuko dituena.

5.7 Iraunkortasunaren aldeko ekimenak sustatu:

Udal barruko erosketa berdea eta etikoa, Bidezko Merkataritzaren Aldeko Hiria programan eta

Plastikozko poltsarik gabeko Hiria programan parte hartuko da.

5.8 Eratzun berde-urdina egitasmoa garatu eta gizarteratu

Zarautzek ingurune natural aberatsa du, berdez eta urdinez inguratuta dago, mendiz eta itsasoz hain zuzen ere. Talaimendi, Biotopoa eta bere babe-guneak, Pagoetako parke naturala, Urteta eta Urdaneta inguruak, Indamendi, Elkano eta Vista Alegreko parkea, Santa Barbara eta hondartza eta itsasoa. Ingurune natural horien guztien balioak eta zaintza egokia egiteko jarraibideak dibulgatuko dira.

5.9 Zarauzko Udalak eta Fiare elkarteak sinatutako hitzarmena garatu

Garapen iraunkorraren ezaugarrietako bat elkartasuna da. Fiare elkarte elkartasun eta solidaritate eredu den neurrian, hitzarmena sinatu du Udalak banka etikoarekin lan egiteko. Hitzarmena 2016an hasiko da garatzen.

6. GARAPEN EKONOMIKOA SUSTATZEA

Garapen ekonomikoa prozesu bat da, Zarautzen aberastasuna sortzeko helburua duena, baina alderdi soziala eta iraunkortasuna ere oso presente eduki behar dituena.

Ekonomia sustatzea funtsezkoa da herritarren

ongizatea lortzeko, inor atzean ez gelditzeko. Horregatik, nahiz eta Udalak eskumen handirik ez izan arlo honetan, gure egitekoen artean prozesu hau bultzatu, eta lagundu nahi dugu, gure esku dauden azpiegitura, zerbitzu eta bitartekoak sortzen.

Turismoaren sustapena Zarauzko Udalak berezko duen eskumena da, eta Turismoa jarduera ekonomikoa garrantzitsua da gure herrian. Horrela bada, Turismoari lotutako ekintza ugari sustapen ekonomikora begira egongo dira. Ez dugu ahaztu behar, gainera, Zarauzko egitura ekonomikoa 3. sektoreak pisu handia duela. Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen artean biztanleria okupatuaren bi herenak aurkitzen baitira, eta turismoa sustatuz 3. sektorea ere indartuko dugu.

2. sektoreari dagokion sustapen ekintzarik aipagarriena Lurraldearen arloan kokatu dugu, 2. helburuan: "Errotaberriko sektorea urbanizatzea jarduera ekonomikoak bultzatzeko". 1. sektoreari dagozkion ekintza batzuk ere lurraldearen arloan kokatu dira.

6.1 Turismoko plan estrategikoa egin

Turismoko Plan Estrategikoa egingo da 2017an eta hor jasoko dira sektoreari dagozkion helburu eta ekintza zehatzak. Turismoari buruzko hausnarketa sakona egin nahi da: eskaintza berriak, merkatu berriak, baliabide egokiak, harreman sare egonkorrak, sektorearekin elkarlana. Publiko berriak erakartzeko eskaintza egokitu beharko da: Familia turismoa,



AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA HERRITARRAK

- ⊕ Turismo gastronomikoa, Natura turismoa, Turismo aktiboa... Aukera horiek guztiak landuko ditu Plan estrategikoak. Bisita kopurua eta horien iraupena handitu eta urte osora zabaltzeko, kalitatezko zerbitzua ematea izango du helburu.

6.2 Eskaintza berriak zabaltzeko bitartekoak sortu:

Familia Turismoa: Zarautz helmuga paregabea da familientzat eta haurrak etorkizuneko bisitariak dira. Zarauzko haurrek egindako gida argitaratuko da 2016an, kanpoko haurrei gure herria haurren begietatik erakusteko.

Natura turismoa: mendi ibilbideak homologatuko dira, eta Zarautz-Getaria-Zarautz ibilbidea sustatuko da Getariako Udalarekin batera. Etorkizunera begira, BTT ibilbideak eta BTT eta "Nordic walking" zentroak sortzeko asmoa dago.

Turismo Gastronomikoa: Euskal Herrian gastronomia turismo-baliabide bihurtu da. Eta Zarautzen ere hala izatea nahi dugu, gure sukaldaritza eta gastronomia erreferente bihurtu nahi ditugu. Arlo honetan, eskaintza bereziak sortuko dira ostalarien laguntzarekin: Zarauzko pintxoak, Zarauzko gozoa, etab.

6.3 Udal Programazioa indartu urtean zehar

Bisitariak urtean zehar erakartzeko programazioa indartuko da udal departamentu guztien elkarlanari esker.

6.4 Komunikazioko profesionali zuzendutako famtrip/presstrip-ak antolatzea

Komunikazioko profesionali zuzendutako sustapen ekintzak behar-beharrezkoak dira. Bidaiak antolatuko ditugu sektoreari buruzko informazioa ematen duten profesionalak Zarautzera ekarri eta lehen eskutik gure eskaintza ezagutu dezaten. Eta turismo arloko profesionalentzako topaketak ere bai.

6.5 Akitaniako biztanleei zuzendutako eskaintza berezia diseinatzea eta martxan jartzea

Iparraldeko merkatua lehenetsuneko merkatua da. Alde batetik, gertuko merkatua delako, eta bestetik denboraldiz kanpoko turismoa delako. Gertu daude, opor egutegi ezberdina daukate eta hondartza eta eguzki-turismoaz gain beste interes batzuk dituzte: gastronomia, tradizioak...

Horrela bada, kanpaina bereziak egingo dira 2016 eta 2017an akitaniarrei begira.

6.6. Landa garapena. Baserritarren udal azoka dinamizatzea

Baserriaren iraupenerako, nahitaezkoa dugu belaunaldi erreleboa. Baserrira ogibide bezala erakargarria izan dadin, behar beharrezkoa da alde batetik, azpiegiturak hobetzea eta beste aldetik, baserriko produktuen komertzializazioa sustatu behar dugu.



AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA HERRITARRAK

⊕ Horretarako, Urkome eta instituzioen eskutik, baserriak behar dituen azpiegiturak mantenduko dira eta bestalde, Udal azokaren erabilera dinamizatu nahi da. Baserritarren salmenta-postuak hobetuko dira eta bertako produktuekin eta produktu ekologikoekin zerikusia duten azoka bereziak antolatu: landare azoka, Biolur, jardunaldi ekologikoak, kosta gastronomikoa...

6.7 Enplegua sustatu eta Enpresei laguntzeko diru-laguntza plana

Urola Kostako Udal Elkartearekin elkarlanean, enpresei laguntzeko diru-laguntza plana sortuko da: enpresa berriak sortzeko, daudenak garatzeko eta bereziki laneratzeko zailtasun gehien dituzten pertsonak kontratatuzko.

6.8 Merkataritza biziberritzeko plana (PERCO)

Merkataritza biziberritzeko plana egingo da (PERCO) egungo egoeraren diagnostikotik abiatuta. Planean erakundeek eta sektoreko eragileek hartuko dute parte eta merkataritza biziberritzeko proposamenak egingo dituzte. Plana egin ondoren Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte Zarauzko merkatariek.

6.9 Smart Zarautz, Hiri Adimendua

Udal mailan teknologia berriak txertatzea da egitasmo honen helburua. Zarautzen beharretara eta

neurrira egokitutako "Smart City" proiektua ezarriko dugu. Alde batetik, teknologia berrien laguntzaz, Udalaren barne prozesuak erraztu eta garatzen diren heinean, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetuko dira. Bestalde, Udalak kudeatzen dituen instalakuntzen monitorizazioak eta kontrolak, zerbitzuaren hobekuntzaz gain, besteak beste, energia aurrezteka ere ekarriko du.

6.10 Zarautz 2025 Plan estrategikoa

Nolako Zarautz nahi dugu etorkizunerako? Gure egoeraren ezagutzatik abiatuta hausnarketa prozesu parte-hartzailea egingo dugu, 2025eko Zarautz irudikatu eta helburu horri begirako neurriak hartzen joateko.

7. HERRITARREN PARTE-HARTZEA BULTZATZEA GAI ESTRATEGIKOETAN ETA ELKARREN ARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZEA

7.1 Herritarrak informatzeko komunikazioa hobetu kanal eta euskarri egokiak erabilita

Administrazioa herritarrengana hurbildu nahi dugu eta herritarrak administrazioarengana ere bai. Horrenbestez bi noranzko horietan ibiltzeko bideak eraikiko dira.

Herritarrei informazioa gardentasun osoz emateko eta haiengandik iradokizun eta proposamenak jasotzeko webguneak, sare sozialak, auzoz auzoko aurkezpenak, bilerak, galdeketak, kontsultak... formatu ezberdinak erabiliko dira eta horien kontu emango da.

7.2 Udalak dituen parte-hartze gune egonkorak sustatu eta indartu

Udalak baditu parte-hartze organo egonkor eta sektorialak, hala nola, Euskara Aholku Batzordea, Kultura Mahaia, Udal Eskola Kontseilua, Parekidetasun Kontseilua... eta beste batzuk ere sortuko dira agintaldian: Kirol Mahaia...

7.3 Plangintzako Aholku Batzordea eratu eta kontsolidatu

Plangintzako Aholku Batzordearen egitekoa da lurralde antolamenduaren arloko erabaki estrategikoetan Udalari aholku ematea. Agintaldi honetan abian jarriko da berriz ere, erabaki estrategikoei buruzko informazioa herritarrekin partekatuzko eta beren aholku eta proposamenak jasotzeko. Urtean bitan elkartuko da.

7.4 Bizilagun berrien integrazioa eta jatorri ezberdinetako zarauztarren arteko bizikidetz lantzeko ekimenak indartzea

Zarauztik Mundura bezalako ekitaldiak bultzatuko ditugu, Zarauzko kultura aniztasuna ospatzen eta aldarrikatzen duen jaia delako, jatorri ezberdinetako zarauztarren elkargunea, hain zuzen ere.

Zarauztik Mundura eta antzeko ekitaldiek erakutsi nahi digute gure herrian dagoen kultura aniztasuna guztiontzat aberatsa dela. Gainera, bizilagun berri askorentzat herri-dinamikan parte hartzeko lehen aukera da, hortaz, kanpotik etorritako zarauztar berriak gure gizartean integratzeko urratsak eman eta beste parte-hartze eremuetarako sarbidea ere izan daiteke.

7.5 Bizikidetzeta Plana

Bizikidetzeta Batzordearen baitan, herritarren arteko bizikidetzeta lantzeko Plana egingo da. Planak herritarren arteko normalizazio sozial eta politikoa lortzea izango du helburu.



AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA LURRALDEA

*“Ez da gobernu perfektu bat behar;
gobernu praktiko bat baizik”*

Aristoteles, filosofo greziarra

*“Hirigintza eta lurralde antolamenduko politikak
baloratzeko modu bakarra dago: herritarrengan
sustatutako zorientasuna neurtuta”*

Adam Smith, filosofo eta ekonomista eskoziarra

Orokorrean esanda, Udalaren politika ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoa udalerriko espazio geografikoan proiektatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen da Lurraldearen Arloa.

Gobernuak arlo horretan egiten dituen ekintzen ondoriozko erabakiek izugarriko garrantzia dute herritarren bizi-kalitatean (errenta-maila, bizi- eta lan-baldintzak, ingurumenaren kalitatea). Bestalde, Udalak lurraldea zentzuz erabiltzea eta bitarteko naturalak era arduratsuan kudeatzea espero dute herritarrek.

Gaur egun Zarautzko Udaleko Lurraldearen Arloak bi departamentu hauek hartzen ditu:

Hirigintza eta Ingurumena. Funtzio hauek ditu:

- **Hirigintza-antolamendua eta -kudeaketa**
- **Lizentziak eta hirigintza-diziplina**
- **Eraikinen eta jardueren ikuskapena**
- **Hondartzako zerbitzuen ingurumen-kudeaketa**
- **Ingurumen-hobekuntza, espazio naturalak eta bioaniztasuna**
- **Landa-garapena**

Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuak.

Funtzio hauek ditu:

- **Udal obren proiektuak idatzi eta egin**
- **Obretako udal brigada**
- **Zerbitzu-sareak: ur-hornidura, saneamendua, argiteria publikoa...**
- **Kale-garbiketa**
- **Parkeak, espazio irekiak, kaleak, bideak, errepideak...**
- **Lizentziak eta baimenak espazio publikoetan: aldarmioak, edukiontziak, terrazak...**

Aipatutako bi departamentuez gain, lurraldearen arloan sartzen da, baita, **Zarautz Lur SA udal sozietate publikoa**, bere helburu sozialen artean ere sartzen direlako aurreko funtzioetako batzuk, eta bereziki hirigintza-antolamendua eta -kudeaketa, etxebizitza eta hiri-birgaitzeak.

Udalbatza honen agintaldiko planean (2015-2019), ondoren zehaztutako helburu estrategikoak eta ekintzak jarri zaizkio Lurralde Arloari:

AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA LURRALDEA

1. ZARAUZTARREI ETXEBIZITZA BABESTUAK ETA ESKURAGARRIAK ESKAINTZEA.

Azken 14 urteetan Zarautzen ez da babes publikoko etxebizitzaren sustapen esanguratsurik eraiki.

Etxebidieren egungo datuen arabera, 1.150 eskatzailek lortu nahi dute etxebizitza babestua gure herrian. Horietatik 851 Zarautzen errolatutako pertsonak dira. Eskari orokor horretatik % 58k etxebizitza jabetzan eskuratu nahi du eta % 42k, berriz, alokairuan. Bestalde, gauza jakina da Zarautzen etxebizitza librearen prezioa EAEko garestien artean dagoela.

Testuinguru horretan, eta plan orokorraren potentziala aprobetxatuta, alde batetik, **etxebizitza babestua sustatzeko hiru area** bultzatu nahi dira, eta, bestetik, **plan bat** egingo da **Zarautzen etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko**.

Honako hauek dira Udalbatza honen agintaldi-planean sartutako hiru hirigintza-areak:

Aldapeta, lehen Santa Ana eskola zegoen lurretan. Gaur egun udal jabetzakoa da. Hor **50-60 etxebizitza** inguru eraiki nahi dira, denak babes ofizialekoak. Aurreikuspenen arabera, 2017an hasi ahal izango dira area urbanizatzen eta etxebizitzak eraikitzen, eta agintaldi honekin batera bukatuko dira.

Salberdin, Santa Klara komentuari eta Zelai Ondo auzoaren artean dagoen zona zabala. Kudeaketa pribatuaren bidez egingo da gauzatze urbanistikoa (kontzertazio sistema), baina etxebizitza babestuak egongo diren ia partzela guztiak Udalaren jabetzapean geratuko dira, birpartzelazioa onartu ondoren. Legealdi honetan espero dugu arearen urbanizazio eta birpartzelazio proiektuak onartzea eta proiektatutako lau faseetatik lehenengoari ekitea, babes publikoko ia **140 etxebizitza** eskaini ahal izateko.

Irita, Itxasmendi auzoaren eta autopistako sarreraren artean dagoen zona. Hasiera batean enpresa-parke bat egiteko asmoa bazegoen ere, agintaldi honetan plangintza aldatu nahi dugu, bertan etxebizitzak eraiki ahal izateko. Oraindik zehazteko dago zenbat etxebizitza egingo diren, baina ideia da area horren birkalifikazioak eta antolamendu berriak balio dezala Kortazarren --San Pelaio auzoaren ondoan-- aurreikusita zeuden eta azkenean eraikiko ez diren 150 etxebizitzak konpentsatzeko.

Etxebizitzaren gaian eskumena duten administrazio eta erakundeekin lortzen diren akordio eta hitzarmenen arabera gauzatuko dira ekintza horiek (Eusko Jaurlaritzak, VISESA sozietate publikoa, Beterra Kostako industrialdea SA...).

2.- Errotaberri industria-sektoreko urbanizazioa martxan jartzea, jarduera ekonomikoak jarri ahal izateko.

Zarautzek ez dauka gaur egun jarduera industrialeko sektore garrantzitsurik. Ez dauka, ezta ere, jarduera ekonomiko berriak jartzeko lur gehiegirik.

Horiek horrela **Errotaberri sektorearen** garapen urbanistikoa bultzatu nahi da, bertan jarduera industrial berriak jartzeko eta birgaitu behar diren esparruetan lehendik daudenak hara eramateko (Salberdin, Hegoalde...).

Helburua da sektorearen urbanizazioa bultzatzea. Horretarako hitzarmenak eta akordioak sinatuko dira beste administrazio publikoekin, lehenbailehen konpon daitezkeen orain arte proiektu estrategiko hau gauzatzea oztopatu duten arazo eta zailtasunak.

3. ZARAUZKO INGURUMENA, NATUR-GUNEAK ETA BIOANIZTASUNA HOBETZEA ETA EZAGUTARAZTEA.

Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko irizpide orientatzaileen artean jasota daude bai ingurumen-iraunkortasuna, bai lurzorua berezko baliabide naturalen babesa.

Zarautz inguru pribilegiatuan dago. Inguru natural eta natur-intereseko area nabarmenak ditu. Beharrezkoa da horiek era berezian zaindu eta babestea. Udal mugapearen barruan, besteak beste, honako hauek daude: hondartza, Iñurritzako Biotopo babestua eta Garate-Santa Barbarako eta Pagoetako kontserbazio bereziko eremuetako zati batzuk.

Udal hirigintza antolamenduak eta lurraldekoak dagoeneko babestuta daukate gure lurraldearen zati handi bat, eta esan dezakegu azken urteetan ahalegin nabarmenak egin direla natur eta ingurumen arloan balio handiena duten espazioen diagnostikoa eta antolamendua egiten.

Zabalkunde eta kontzientziario arloko ekintzetan honako hauek aurreikusi dira: **gure bioaniztasunari** eta **itsasertzeko dinamikari buruzko azterketak** idaztea eta **sentsibilizazio-kanpainak edo jardunaldien programazioak** egitea, ingurumenarekin lotutako hainbat gaitan kontzientziatzeko (uraren eguna, zuhaitzaren eguna, klima-aldaketa, hondakinen birziklapena eta murrizketa, energia berriztagarriak, jardueren ingurumen-kontrola, isurketak, kutsadura atmosferikoko guneak, lurren kutsadura...).

Filosofia horrekin bultzatuko ditugu, baita, **landa-bideen berreskurapena eta landa-bide berriak sortzea**, gure natur-ingurunea ezagutarazteko. Nekazari eta abeltzainak babesten ere jarraitu nahi dugu, eta gure asmoa da **landa-errepideen sare** eraginkorra eta kalitatezkoa edukitzea, hobekuntzen



AGINTALDIRAKO GURE KUDEAKETA PLANA LURRALDEA

→ eta etengabeko mantentze-lanen plan baten bidez.

Nabarmentzeko moduko beste jarduera batzuk gure erreka, hezegune eta akuiferoekin lotutakoak dira. Lan hauek egingo dira, URA Uraren Euskal Agentziarekin batera: **Iñurritza erreka ingurunea berritu** (Errotaberri sektore industrialetik beherako zatian) eta **gure erreka garbitzeko** kudeaketa-plan bat burutu. Horrekin batera, beste ekintza batzuk ere egin nahi ditugu **gure akuiferoa babesteko eta gure hezeguneen babes-eremua** Iñurritzako biotopo babestuaren mugetatik kanpora ere **zabaltzeko**.

Aurreko urteetan egindako lanarekin jarraituta, **hondartzako ingurumen-kudeaketa mantendu eta hobetu** nahi dugu (aurten saria jaso du, jarri zenetik 12 urtean etenik gabe irauteagatik). Jardueren ingurumen-kontrola egiten lagunduko dugu.

Duela gutxi onartutako Zaraten Udal Ordenantza garatzen jarraituko dugu, eta lan egingo dugu **gure herriko kalitate akustikoa hobetzeko**. Agintaldi honetan zaraten mapa eta horrekin lotutako ekintzen plana egingo ditugu. Hor adieraziko dira zein estrategia eta ekimen jarraituko diren udalerriko kutsadura akustikoa orokorrean kudeatzeko.

Azkenik, atal honetako ekintzen artean sartu da, baita, **zona batzuk jartzea txakurrak libre ibiltzeko**, lotuta eraman beharrik gabe.

4. ESPAZIO ETA BIDE PUBLIKOEN KALITATEA HOBETZEA, BAI ETA HIRI-INGURUNEAREN IRISGARRITASUNA ERE.

Azken urteetan egindako lanarekin jarraituta, asmoa da **irisgarritasun plana** eguneratzea.

Proiektu zehatzei dagokienez, datozen urteetan **Alde Zaharra oinezkoentzako** proiektuarekin jarraitu nahi dugu (Herrikobarra, Santa Klara, San Frantzisko...) **eta autobus-geralekuak hobetu**.

Trafikoa eta bide-segurtasuna hobetzeko, berriz, zera proiektatu da: **biribilgune bat egitea Araba eta Maria Etxetxiki kaleen bidegurutzan** (Itxasmendi) eta **semaforoak kudeatzeko sistema telematikoa jartzea**. Bestalde ahaleginak egingo dira Foru Aldundiarekin beste hitzarmen bat egiteko **Nafarroa eta San Inazio kaleen bidegurutzan trafikoa era egokiago batean bideratzeko**.

Trenbidearen bi aldean arteko oinezkoen joan-etorria hobetzeko, **Santa Klarako pasonibela kenduko da**, eta lurpeko pasabide bat egingo da bi aldeak lotzeko. Bestalde, Euskal Trenbide Sarearekin negoziatuko da **oinetzkoentzako bide bat sortzeko Salberdin arearen eta Gaztainpe parkearen artean**, egun geltokia dagoen tokian.

Berriz ere Foru Aldundiarekin hitz egiten hasiko gara **N-634 errepidearen saihebidetaren proiektua** berraktibatze eta Abendaño eta Errotaberriko industriaguneei ordezko sarbide bat emateko.

Auzoz auzo kanpaina martxan jarri da, hilabete bakoitzean auzo jakin batean hobekuntza eta konponketa lanak proiektatu eta egiteko, espaloietan, bideetan, parkeetan, hiri-altzarrietan, etab.

Azkenik, garrantzi nabarmena duten jarduera zehatzen artean hauek dauzkagu: Igerain Gaineko espazio irekian **haur-parke estalia** eraikitzea (Salbide) eta kale zaharrenen eta okerren daudenen **urbanizazioa hobetzea**.

5. UDAL ERAIKINEN ETA AZPIEGITUREN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA HOBETZEA; JARDUERA PRIBATUEN BIRGAIKUNTZA ETA JARDUNBIDE ARDURATSUA BULTZATZEA

Udal jabetzako eraikin eta azpiegituren arloan, **udal eraikinen datu-base** bat sortuko da, horien ikuskapen eta mantentze-lanak arrazoiz eta modu sistematikoa batean programatzeko. **Udal plan energetikoa** ere idatziko da, eta hor berrikusiko dira argiteria publikoaren eta energia elektrikoaren horniduraren kontratuak, eraginkortasun energetikoa hobetze aldera. Azkenik, **saneamenduko eta ur-hornidurako sareen berrikuntzarekin** jarraituko da, aurretik jarritako plangintzarekin bat etorritz.

Helburu honetan sartzen dira, baita ere, jarduera pribatuetan eragina izango duten ekintzak. Ez dute inbertsio ekonomikorik behar (udal funtzionarioek egingo dituzte), baina eragin nabarmena izango dute

herritarrengan, hiri-irudia eta bizikidetzaren hobetuko dituztelako. Honako hauek dira:

Kanpaina bat egingo da Zarauzko higiezin parkearen **hiri-berrikuntza bultzatzeko**. Jendeari gogoraraziko zaio 50 urtetik gora dituzten etxebizitza-erakinetan ikuskapen teknikoa egin beharra dagoela. Eta aldi berean, eraikinen datu-basea osatu eta eguneratuko da.

Plan bat jarriko da martxan **jarduera industrialetan kudeaketa arduratsua sustatzeko**, eta bereziki ingurumen-baldintzak betetzeko. Planarekin jarduera horiek arautuko dira, eta aldi berean datu-basea osatu eta eguneratuko da.

Atal honetako azken ekintzaren bidez, **segurtasun eta autobabes planak** egitea bultzatuko da, derrigorrez halakoak eduki behar dituzten jardueretan.



2015-2019 AGINTALDIRAKO KUDEAKETA PLANA
HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

ANTOLAKUNTZA

Agintaldi Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, proiektuak kudeatzeko metodologia zehatz bat jarraitu dugu, helburu estrategikoak eta proiektuak abiarazteko ekintzak ezarri nahi izan ditugularik, erantzukizun politiko eta teknikoaren mailak, denbora-muga eta aurrekontu-hornidurak finkatuz.

ANTOLAKUNTZA ARLOA

HELBURUA	EKINTZAK	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA															
				2016				2017				2018				2019			
				1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4
1 Zerbitzuak herritarrengana hurbiltzen jarraitzea	1.- Herritarren Arreta Zerbitzua martxan jartzea	60.000 €	Herritarren Arreta Departamentuko arduradun teknikoa eta politikoa	█	█														
			Herrilaneke arduradun teknikoa eta politikoa	█	█														
	2.- Udal Zerbitzu Telematikoak zabaltzea (administrazio elektronikoa)	10.000 €	Informatikako arduradun teknikoa eta politikoa	█	█	█	█	█	█	█	█								
